

OGP EUSKADI – FORO ERREGULARRAREN BILERA

SAIO BIRTUALA – 2021eko MARTXOAREN 1a

Gai-zerrenda	<ol style="list-style-type: none"> 1. 2018-2020 planaren ebaluazioa eta Plan berria prestatzeko prozesua 2. Ekarpenak eta iritziak 3. Hurrengo urratsak
Iraupena	15:00 - 17:00

ERAKUNDEA	PERTSONA	BERTAN
Eusko Jaurlaritza	Javier Bikandi - Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako zuzendaria	BAI
Arabako Foru Aldundia	Lexuri Ugarte - Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria	EZ
Bizkaiko Foru Aldundia	Josu Bilbao – Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako zuzendaria	Bertaratu ezina adierazi du
Bizkaiko Foru Aldundia	Raúl Gutiérrez – Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako aholkularia	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Mikel Pagola – Herritarren Partaidetzarako zuzendari nagusia	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Goizeder Manotas – Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendari nagusia	BAI
Bilboko Udala	Amagoia Ibarrodo – Kalitate eta Ebaluazioko zuzendaria	BAI
Donostiako Udala	Manu Narváez - Lehendakaritzako zuzendaria	BAI
Gasteizko Udala	Borja Rodríguez – Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko zinegotzia	EZ
Innobasque	Gotzon Bernaola. – Berrikuntza Publikoko zuzendaria	Bertaratu ezina adierazi du
Ibatuz	Antxon Gallego	BAI
Mestiza elkarte	Ana Molina	BAI
Osoigo	Eneko Agirre	BAI
Emakumeen Kontseilua	Arantza Otaolea	BAI
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Maialen Olabe	BAI
Sareen Sarea	Mikel Barturen	BAI
Unicef Euskadi	Elsa Fuente	BAI
Eusko Ikaskuntza	Beatriz Akizu	BAI
Arabako Kontzejuen Elkarte	Joseba Terreros	EZ
Idazkaritza teknikoa	Koldobike Uriarte - <i>proiektuaren arduradun teknikoa</i> Goizalde Atxutegi - <i>Innobasqueren proiektuen arduraduna</i>	

SARRERA

Javier Bikandik ongi-etorria eman die Foro Erregularreko kideei eta eskerrak eman dizkie 2018-2020 Planaren itxiera-prozesuan bat egin zuten Foroko kide berriei. Halaber, saioan parte hartzen duten pertsonei jakinarazi die, lehenago biltzea aurreikusi arren, foroaren bileraren

deialdia ezin izan dela orain arte egin hainbat arrazoirengatik. Batetik, pandemiak plan berriaren itxiera eta hasiera baldintzatu du, eta Gobernu Irekiko zuzendaria izendatzeke dago Eusko Jaurlaritzan (horregatik, berak hartuko ditu funtzioak bere gain, aldi baterako). Era berean, Aliantzak arau eta ohar berriak bidali zain geunden, plan berria prestatzeko.

BILERAKO EDUKI NAGUSIAK AURKEZTEA

Koldobike Uriartek, OGP Euskadiko arduradun teknikoak, bileraren puntu nagusiak laburbildu dizkie, [aurretiaz bidalitako aurkezpenari](#) jarraikiz, Foro Erregularra osatzen duten pertsonen

1. 2018-2020 Planaren Ebaluazio Partekatuaren emaitza nagusiak eta hobekuntza-proposamenak, datorren planean jorratzeko

Txosten osoa OGP Euskadiren webgunean dago eta gobernantza-eredua zein planaren emaitzak ebaluatu dira. Aurkezpenaren txostenaren alderdi esanguratsuenetako batzuk eta elementu kualitatiboak aipatzen dira: herritarren parte-hartze handiagoa, aniztasuna, adierazgarritasuna, dedikazioak eta funtzioak, komunikazioa, eta abar.

Parte-hartzaileek iritzia emateko erronda:

- K5en puntuazio baxuagatik harridura adierazi da, batez ere gauzatze-mailari dagokionez; izan ere, konpromiso-mugarri ia guztiak gainditu dira, eta ebaluazio orokorraren emaitzak ez datoz bat Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako konpromiso-ebaluazioarekin.
 - Idazkaritza teknikoak erantzun du ebaluazio partaidetuak beti direla erantzuna ematen duenaren araberrakoak eta, horregatik, prestakuntza-ikuspegitik interpretatu behar direla; izan ere, balorazioa apartatuka xehatzeak aipatu direnen moduko desdoitzeak eragin ditzake.
 - Halaber, K5eko konpromiso-taldean gizarte zibilaren aldetik parte hartu duen Foro Erregularreko partaideetako batek nabarmendu du Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako lana bikaina izan dela eta, beharbada, artikulatu konplexuagoa duten konpromisoek, hala nola K5ak, balorazio okerragoa izan dutela, garapenean zuzenean parte hartu ez bada nekez baloratu daitezkeelako.
- Talde sustatzailearen balorazioa eskatu da ebaluazioaren emaitzei dagokienez (datuak espero zirenak diren, horien balorazioa positiboa den).
 - Kontuan hartuta edukietako batzuk zehaztu gabe dituen erakundearteko lehen plan baten emaitzak direla, idazkaritza teknikoak balorazioa positiboa izan dela erantzun du. Oro har, nabarmendu diren gaitako batzuk agerikoak dira: adibidez, foro irekia okerren baloratzen den espazioa izatea, eta konpromiso-taldea, berriz, balorazio onena duena (kontraste-espazioa vs kodiseinu-espazioa), edo webguneko konpromisoen xehetasun-mailak (dokumentazioak) balorazio okerragoa izatea (dokumentazio ulergaitz gehiegi) planeko informazio orokorrak baino.

2. Plan berrirako formulario irekiaren bidez jaso diren **herritarren proposamenak**

175 formulario oso jaso dira. Gutxi gorabehera, Aliantzak lantzen dituen ardatz edo esparru beretan multzokatu dira. Esparru batzuetan beste batzuetan baino proposamen gehiago daude eta proposamenak askotarikoak dira: izaera orokorrekoak, zehatzak, operatiboak, estrategikoak... Herritarren proposamen horiek abiapuntutzat hartu dira (orientazio gisa), ondoren talde sustatzaileak egin duen lanerako, plan berriaren balizko lan-ildo berriak identifikatzeko.

3. **Talde sustatzaileko kideek egindako proposamenak**, herritarrengandik jasotako proposamenak kontuan hartuz

Behin herritarren proposamenak jaso ostean, erakundeen artean galdera-txanda bat egin zen, talde sustatzailea osatzen duten erakundeen proposamenak jasotze aldera: herritarren kezka eta proposamenak ikusita, zer proposamen zehatzetan jardun daitekeen arduradun / ardurakide gisa, eta nola lagun daitekeen plan berrian gauza daitezen. Aurkezpenean zerrendatu dira eta xehetasun handiagoz azaldu dira fase honetan jasotako proposamenak.

5 lan-ildoz osatutako lehen proposamen bat egin da, proposamenak esparru operatiboago batera eramateko. 5 lan-ildo horiek aukera ematen dute hauek aztertzeko: erronka zein den, gauzatzen zerk lagunduko ligukeen, jorratzeko zer beharko genukeen, eta abar. Orain, Planeko konpromisoei forma emateko, analisia egitea da kontua. Hasiera batean, uste genuen apirilaren amaierarako izan beharko genukeela, baina Aliantzarekin bildu ostean, lan hori maiatzean bukatu beharko genuke. Halaber, adierazi da Planaren esparruko konpromisoak planaren iraunaldi osorako izan daitezkeela, edo lehenago amaitu daitezkeela, eta beste konpromiso batekin osatu; betiere, Plana itxi aurretik amaitzen badira (gure kasuan, 2024a baino lehen).

4. **Lan-ildoen proposamena**, Foro Erregularrarekin kontrastatu beharrekoa

5 lan-ildo horietan lan egitea proposatzen da, konpromisoen kodiseinuan:

- COVID-19 datuen behatokia, administrazioek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu zuzenei lotua
- Gardentasuna eta kontuak ematea: ikuskaritza soziala eta aurrekontuen gardentasuna
- Open Eskolako edukiak garatzea: pertsona zuzen eta osoak izateko hezteka, herritarren ahalduntzea, arrakala digitala eta herritartasun aktiboa...
- Legegintzako, araugintzako edo erregelamendugintzako herri-ekimenak jasotzeko tresna bat garatzea
- Adinduentzako onlineko zerbitzua eta zerbitzu erdipresentziala (arreta-bulegoak) eskaintzea, erabakiak modu informatuan hartzea sustatzeko, kolektibo horren bizi-ibilbidea kontuan hartuta, alderdi soziosanitarioaz haratago.

Lan-ildo horiek jorratzeko, talde sustatzaileak zehaztu du jada zein legokeen hausnarketa horren arduradun / ardurakide izateko prest, erakundeen lidergo nabarmena eskatzen duen OGP plana garatzeko oinarri gisa. Arduradun / ardurakide bakoitzak analisi horretan parte hartuko luke, parte hartu nahi duten Foro Erregularreko kideen eta bestelako eragile / pertsona interesdun batzuen lankidetzarekin.

Era berean, plan berrirako, Aliantzak gobernu irekiko ikuspegi estrategiko bat prestatzea eskatzen du. OGP Euskadiren ikuspegia erakundearteko lankidetzan funtساتzen da, eta, gainera,

horretarako jardunbidea zehaztu behar dugu (governantza-eredua), baita ebaluazio-bidea ere; izan ere, IRMaren figura desagertu egingo da, baina monitorizazioa egiteko figura bat behar da, ikuspegi aditu eta herritarra duena eta, ebidentziak jaso eta Planeko emaitzak aztertuko dituen.

Ekainean, kontraste-foro ireki bat egingo dugu, garatutako konpromisoak (bideragarritzat jotzen ditugun lan-ildoen analisisen emaitza direnak) eta horiek aberasteko ikuspegi estrategikoa aurkezteko asmoz.

Parte-hartzaileek iritzia emateko eta ekarpenak egiteko erronda:

- **OGP Euskadi 2018-2020 planari buruz**, honako gai hauek aipatu dira:
 - 2018-2020 planaren tresnak aprobetxatu behar dira, plan berria egituratu / bideratzeko; idazkaritza teknikoak erantzun du plan berriaren diseinu-prozesua lehenetsi dela, baina Talde Sustatzaileak aztertu behar duela zer-nola finkatuko diren aurreko planean diseinatutako ereduak eta mekanismoak.
- **OGP Euskadi Plan berriari buruz:**
 - 2018-2020 planeko konpromisoetako batzuei plan berriari jarraipena emango zaien galdetuta, Idazkaritza Teknikoak erantzun du bigarren planak ezin duela izan lehenaren jarraipena, Aliantzak definitzen duen bezala, baina garapen-proposamenak egin daitezkeela, balio diferentziala argia bada.
 - Ezinbestekoa da 2018-2020 Planaren ebaluaziotik ikastea, eta honako hauek aipatu dira:
 - Konpromiso kopuru txikiagoa izatea
 - Komunikazioa gehiago lantzea, batez ere sozializazioa xede: ez da nahikoa gauzak egitea eta horiek ondo egitea; herritarrengana iritsi behar da
 - Konpromisoen adierazpena zaintzea: idazketa lor daitekeenera doitzea, bete ezin den itxaropenik ez sortzea
 - Planaren emaitzak ukigarriak izan behar dira; emaitzak ikusteko modukoak dituzten konpromisoak hartu behar dira, eta are gehiago, gauden larrialdi / krisi honetan. Kontu zehatz eta txikietan lan egitea, baina eskalan eta erreplika-asmoarekin.
 - GJH - Agenda 2030 planaren esparru gisa txertatzea proposatu da, konpromisoak helburuotara egokituz eta horien sozializazioan lagunduz. Ildo horretan, nabarmendu da OGP Euskadi planaren indargunea dela herritarrekiko harremana lantzea, erakundearteko ikuspegia izanda.
 - Epe luzeko ikuspegiarekin lan egiteko interesa adierazi da, gobernu irekiko estrategia partaidetu batekin, herritarrak ahalduntzen laguntzeko.
- **Eta, zehazkiago, lantzeko proposatutako ekintza-ildoen gainean:**
 - Ekintza-ildo berriak proposa daitezke eta idazkaritza teknikoak (IT) baietz erantzun dio horri, baina esan du aintzat hartu beharko dela lidergo instituzionalaren aldagaia: Aliantzaren baldintza beharrezkoa da talde sustatzailea osatzen duten administrazioetako batek konpromiso-lidergoa bere gain hartzea.
 - Ekintza-ildo guztiak, azkenean, Planeko konpromisoak al diren galdetuta, ITk erantzun du ez duela zertan hala izan; izan ere, ildoen azterketa partaidetuaren ondoren, ondoriozta daiteke ez direla jorratu behar.
 - Genero-arrakalari loturiko herritarren proposamen ugari daude, ildo batean zuzenean sartu ez direnak; horren aurrean, ITk erantzun du planean zeharka txertatuko dela ikuspegi feminista, diseinu eta ezarpenean. Halaber, erantsi du Aliantzaren gomendioetako bat izaera operatiboa duten gaietara jotzea izan dela, eta posibilitateak izan behar garela planaren irismenari eta anbizioari dagokienez (gaindi daitezkeen erronkei egitea aurre).

- Ekintza-ildoak zehazteko lanak irekiak izatearen beharrari dagokionez, ITk erantzun du, hain zuzen ere, hori dela egiteko geratzen den lana: ideia hartu, eta lankidetzaredu bihurtzea, konpromiso-fitxa osatu arte.

Maialen – Gaur gaian sartzea kostatu zaio; zaila egiten zaio orain 5 proposamenak baloratzea, kostatzen zaio ikustea zer jorratzen duten edo proposamen bakoitzean jarduteko zer margina dagoen. Ondo iruditzen zaio orain egun batzuk hartzea baloratzeko eta herritarren foro erregularreko entitateak elkartzeko, batera pentsatzeko. Badugu denbora?

Koldobike – Bai, badugu denbora. Lan-ildo bakoitzeko paragrafo bat egin dezakegu eta 10 eguneko epea eman foro erregularrak landu dezan, eta ikusi horietakoren bat birpentsatu daitekeen, eta abar. Talde sustatzaileari herritarren proposamenak begiratzeko eskatu zaio, baina ez dago harreman zuzenik kasu guztien eta zuzenean lan-ildo bilakatu diren herritar-ekimenen artean: ikusi da COVID-19arekin, aurrekontuen kontu-ematearekin eta abarrekin erlazionatutako ekimen bat egon beharra zegoela.

Beatriz – Lan asko dago eginda eta asko geratzen da egiteko. Interesgarria da denbora bat hartzea konpromiso batek zer har dezakeen barnean zehazteko eta ulertzeko, eta lankidetzan aritzeko landu beharreko gaietan. Bi erronka: 1/ Konpromiso horiei nola aurre egin gai zehatzak jorratzeko; 2/. Gobernu irekia eta herritarren ahalduntzea aipatzean, nahitaez, **GJHak ere aipatzen ari gara.**

HURRENGO URRATSAK

- Foro Erregularrean gizarte zibila ordezkatzeko erakundeak ekintza-ildoei eta kontraste-prozesuari ekarpenak modu egituratuago batean egiteko bilduko dira (*bilera 2021/03/08rako ezarri da*)
 - Horretarako, ITk lan-ildo guztiei buruzko azalpen xeheagoa bidaliko dio Foro Erregular osoari, gizarte zibila ordezkatzeko erakundeek ekarpenak egin ahal izan ditzaten (*2021/03/03an bidalia*)
 - Foro Erregularrean ordezkaturako gizarte zibilak lan-ildoen inguruko ekarpenak talde sustatzaileari helaraziko dizkio 10 eguneko epean, informazioa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.
- ITk Foro Erregularrari Aliantzaren plan berria egiteko jarraibideak eta beritasunen laburpen bat ere helaraziko dizkio, Foro Erregularreko kideek beraiek aztertu dezaten Aliantzako taldearekin bilera egitea beharrezkoa den ala ez (*2021/03/03*)